

## **BALDINTZEN AGIRIA, ORDIZIAKO AIU 22 "SAN JOAN" ESPARRUAN BOE ETXEBIZITZAK ERRENTAMENDUAN ETA EROSTEKO AUKERAREKIN ESLEITZEKO ERREGIMENARI BURUZKOA**

### **1. artikulua. Deialdiaren xedea**

ORDIZIA LANTZEN, SA, Ordiziako Udalaren jabetzako udal-sozietatea, babes ofizialeko guztira 8 etxebizitzaren jabe da (horien eranskinak barne direla), Ordiziako Filipinak kaleko 38 eta 42 zenbakietan. Etxebizitzek babes ofizialaren behin betiko kalifikazioa dute.

ORDIZIA LANTZEN, Saren asmoa da etxebizitza horiek errentamendu-erregimenean esleitzea, erosteko aukerarekin. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailarengandik behin betiko kalifikazioa aldatzea lortu du, hasierako sarbide- eta erabilera-erregimenari dagokionez, erosteko aukera ematen duen errentamenduaren aukera gaineratzeko, 2012ko abenduaren 12ko Aginduan (2012ko abenduaren 28ko 251. EHAA) xedatutakoaren arabera.

AGIRI honen helburua da adierazitako babes ofizialeko etxebizitzak eta eranskinak esleitzeko baldintzak ezartzea, erosteko aukera ematen duen errentamenduaren erregimenean.

### **2. artikulua. Esleipen-prozeduraren hasiera**

Agiri hau Udalaren iragarki-taulan, web-orrian eta GAO n argitaratuta hasten da esleipen-prozedura. Prozedura amaitzeko, eskritura publikoan jasotzen dira babes ofizialeko etxebizitzak beren eranskinekin batera alokatzeko kontratuak, erosteko aukerarekin.

### **3. artikulua. Prozedura horren bidez esleitu beharreko etxebizitzak eta eranskinak**

Prozedura horren bidez esleitu beharreko etxebizitzak eta eranskinen sortak jarraian zerrendatzen dira.

| <b>Sorta</b> | <b>Etxebizitza</b> | <b>Garajea</b> | <b>Trastelekua</b> | <b>Helbidea</b>     | <b>Behin betiko kalifikazioa</b> | <b>Prezioa (BEZa kanpo)</b> |
|--------------|--------------------|----------------|--------------------|---------------------|----------------------------------|-----------------------------|
| 1            | BS A               | 20             | 16                 | Filipinak Kalea, 42 | EB3-0920/09 - LE 000, 31. SORTA  | 139.186,74 €                |
| 2            | 1. B               | 34             | 14                 | Filipinak Kalea, 38 | EB3-0147/11 - LE 000, 2. SORTA   | 172.927,93 €                |
| 3            | 1. D               | 12             | 3                  | Filipinak Kalea,    | EB3-0147/11 - LE 000, 4. SORTA   | 170.279,57 €                |

|   |      |    |    |                 |        |                                    |              |
|---|------|----|----|-----------------|--------|------------------------------------|--------------|
|   |      |    |    | 38              |        |                                    |              |
| 4 | 1. E | 13 | 4  | Filipinak<br>38 | Kalea, | EB3-0147/11 - LE 000, 5.<br>SORTA  | 166.836,71 € |
| 5 | 2. A | 14 | 5  | Filipinak<br>38 | Kalea, | EB3-0147/11 - LE 000, 6.<br>SORTA  | 166.376,41 € |
| 6 | 2. E | 18 | 9  | Filipinak<br>38 | Kalea, | EB3-0147/11 - LE 000, 10.<br>SORTA | 166.376,41 € |
| 7 | 3. A | 19 | 10 | Filipinak<br>38 | Kalea, | EB3-0147/11 - LE 000, 11.<br>SORTA | 165.657,57 € |
| 8 | 3. B | 20 | 11 | Filipinak<br>38 | Kalea, | EB3-0147/11 - LE 000, 12.<br>SORTA | 169.100,43 € |

Erantsitako garajeak eta trastelekuak etxebizitzetara lotuta daudenez, denak batera errentamenduan hartzeko eta ondoren erosteko aukera baliatzeko betebeharra dago.

Etxebizitzak, eta horiei lotutako garajeak eta trastelekuak arautuko dira oinarri hauek onartu zirenean babes ofizialeko etxebizitzaren arloan indarrean zegoenari jarraituta, eta indarreko legeriaren arabera araubide hori beteko dute beti.

Dokumentu honi behin betiko kalifikazioaren kopiak erantsi zaizkio. Bertan, sustapena osatzen duten etxebizitza, garaje eta trastelekuz osatutako sorten azalerak eta prezioak finkatu dira.

Behin betiko kalifikazioetan adierazten diren prezioei, une bakoitzean aplikatu behar zaien balio erantsiaren gaineko zergaren (BEZ) kopurua gehitu behar zaie.

#### **4. artikulua. Erosteko aukera ematen duen errentamenduaren baldintzak**

**4.1 epea:** Erosteko aukera ematen duen errentamenduaren iraupena BOST URTEKOA izango da.

**4.2 errenta:** Hasiera batean, hileko 100 euroko errenta ezarri da (BEZa kanpo), hileko ordainketa aurreratuaren bidez.

**4.3 Erosteko aukera:** Erosteko aukeraren kontraprestazio gisa, hileko 500 euroko kopurua ezarri da (BEZa kanpo), hileko ordainketa aurreratuaren bidez.

#### **4.4 Erosteko aukera baliatzeko uneko kenkaria**

Erosteko aukera baliatzean, guztizko salmenta-preziotik kenduko da (3. artikuluan ezartzen da):

a) Errentamenduren iraupenaldian ordaindutako errentengatik:

1.- Errentariaren aldetik ordaindutako errenten baturaren % 65, erosteko aukera iraupenaldiaren bosgarren urtean baliatzen bada.

2.- Errentariaren aldetik ordaindutako errenten baturaren % 70, erosteko aukera iraupenaldiaren laugarren urtean baliatzen bada.

3.- Errentariaren aldetik ordaindutako errenten baturaren % 80, erosteko aukera iraupenaldiaren hirugarren urtean baliatzen bada.

4.- Errentariaren aldetik ordaindutako errenten baturaren % 90, erosteko aukera iraupenaldiaren bigarren urtean baliatzen bada.

5.- Errentariaren aldetik ordaindutako errenten baturaren % 100, erosteko aukera iraupenaldiaren lehen urtean baliatzen bada.

b) Erosteko aukeraren prezioagatik edo kontraprestazioagatik:

Errentariaren aldetik ordaindutako kopuruen zenbateko osoa, salerosketako eskritura egiten den datara arte.

Erosteko aukera baliatuko ez balitz, ordaindutako kopuruak beretzat atxikiko ditu ORDIZIA LANTZEN, SAK.

#### 4.5 Fidantza

Erosteko aukera duen errentamendu-kontratua sinatzeko unean, alde errentariak 600 euro entregatuko dizkio ORDIZIA LANTZEN, SAKi, legezko fidantzaren kontzeptupean. Fidantzaren zenbatekoa alde errentariari kontratua amaitzean itzuliko zaio; baldin eta bere betebeharrak guztiak bete baditu eta errenten ordainketan egunean badago. Bestela, ORDIZIA LANTZEN, SA errentatzaile gisa fidantzaz jabetuko da, alde errentariari bidezkoak diren zigorrak eta kalte-galeren ondorioz ordainak eskatu ahal izatearen kaltetan izan gabe.

#### 4.6. Alde errentariaren konturako gastuak

Alde errentariaren kontura izango dira:

a) Errentan hartutako zerbitzu eta hornidura guztien kostuak; adibidez: energia elektrikoa, gasa, berokuntza, ur hotz eta beroa, telefonoa eta, oro har, beste edozein gastu.

b) Uraren, argiaren eta telefonoaren hornidura-kontagailuak eskuratu, kontserbatu, konpondu edo ordezkatzeko, eta haiei alta emateko zenbatekoa.

c) Jabekideen erkidegoaren ordainagiriak, errentan hartutako etxebizitzari dagozkionak (administratzaileko gastu orokorrak eta eraikina mantentzeko beharrezko lanak direla eta), uraren udal-tasak, saneamendukoak eta zaborrak biltzekoak.

d) Erosteko aukera duen errentamendu-kontratua ematearen eta publiko bihurtzearen ondoriozko gastuak.

e) Etxebizitzaren erabileraren gaineko bestelako zergak.

### **5. artikulua. Erosteko aukera ematen duen errentamendu-erregimenean babes ofizialeko etxebizitza baten onuradun izateko baldintzak**

Pertsona fisikoek erosteko aukera ematen duen errentamendu-erregimenean babes ofizialeko etxebizitzak eskuratu ahal izateko, eskaera egiten duen bizikidetza-unitateak ondoren zehaztuko ditugun baldintzak egiaztatu beharko ditu aldezturik.

Orri honen ondorioarako honako hauek osatuko dute bizikidetza-unitatea:

a) Pertsona fisiko batez osatua, baldin eta eskaerak aurkezteko epea ixtean **adinez nagusia** edo emantzipatua bada. Pertsona bakar batek osatutako bizikidetza-unitatea izango da.

b) Hainbat pertsona fisiko. Halako unitatetzat hartuko da, baldin eta bi pertsonak edo gehiagok osatzen badute, eta ezkontzaz edo ezkontzaren antzeko bestelako harreman egonkorraz elkarturik badaude, edo adopzioz zein odol-ahaidetasunez, 3. mailara arte, eta afinitatez, 2. mailara arte; baldin eta etxe berean bizi edo biziko badira. Bazterrean utziko da bizikidetasuna, adiskidetasunagatik edo interesagatik.

3. maila arteko albo-lerroko odol-loturen bidez eta 2. maila arteko ezkontza-ahaidetasunen bidez gauzatutako egungo nahiz etorkizuneko bizikidetza-unitateek babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko, beharrezkoa izango da ahaidetasun horren bidez lotutako pertsona guztiak titularkide izatea, betiere adinez nagusiak badira.

Halaber, irabazien ezkontza-erregimenean ezkonduko kideek etxebizitzaren titularkide izan behar dute.

Ondasunen banaketa-erregimenean ezkonduko kideak edo izateko bikoteak izanez gero, esleipendunek erabaki ahal izango dute titular kidetasunaren ehunekoa.

Egiaztatu beharreko baldintzak:

1. Adinez nagusia edo emantzipatua izatea: NANA aurkeztuta egiaztatuko da.
2. Egoitza: eskatzaileak edo, hala badagokio, gutxienez eskatzaileetako batek Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egon beharko du.
3. Diru-sarrerak: 2011ko irailaren 14ko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Aginduan (2011ko irailaren 30eko 187. EHAA) ezarritako urteko diru-sarrera haztatueterako baldintzak betetzea.

Prozedura honen hasiera-data dela eta, sustapen hauetarako, **2013. urteko errentaren aitorpenari** dagozkion diru-sarrerak zenbatuko dira. Gutxieneko diru-sarrera haztatuak 9.000 euro izango dira, eta gehieneko diru-sarrera haztatuak 39.000 euro.

#### 4. Etxebizitzaren beharra

Bizikidetza-unitateko kide guztiek ezin dute jabetzan inolako etxebizitzarik, jabetza soilik nahiz azalera-eskubiderik edo -gozamenik izan, esleipen –prozedura honen hasierari dagokion

iragarkia GAOn argitaratzeko dataren aurreko bi urteetan. Egoera horretan jarraitu beharko dute salerosketaren eskritura publikoa egiten den arte.

Aurreko baldintzak erosteko aukera ematen duen alokairuren aldi osoan zehar bete beharko dira, erosteko aukera baliatzen den unera arte.

Esleipen-baldintzak betetzen ez direla egiaztatuz gero, prozeduraren edozein unetan kanporatu hal ahal izatea eragingo du.

## **6. artikulua. Informazioa**

Prozedura honi lotutako edozein informazio udaletxeko iragarki-taulan eta udalaren web orrian ([www.ordizia.eus](http://www.ordizia.eus)) argitaratuko da.

## **7. artikulua. Esleitzeko era**

Erosteko aukera ematen duen alokairu-erregimenean etxebizitzak Ordiziako notarioaren aurrean egingo den zozketa publiko bidez esleituko dira. Zozketan lehentasuna emango zaie 2014ko abenduaren 31 baino lehen kideetako bat behintzat Ordizian erroldatuta duten bizikidetzak-unitateei.

Zozketak ezarriko du izena emandako bizikidetzak-unitatek zein hurrenkeratan izango duten aukera eskuragarri dauden etxebizitzak eskuratzeko. Zozketa berean, zozketan onuradun suertatu ez direnen artean, itxarote-zerrendaren hurrenkera ezarriko da.

Zozketaren emaitza eta itxarote-zerrenda notarioaren aktan jasoaraziko dira. Horren kopia Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan aurkeztuko da 15 eguneko epean.

## **8. artikulua. Zozketako parte-hartzaileak**

Zozketan parte hartuko dute Ordiziako Udalean berariaz ezarriko den erregistroan, prozedura hau hasten den datatik aurrera, izena ematen duten pertsonak edo bizikidetzak-unitateak. Hasierako data horretatik aurrera, hilabeteko epea ezarri da izena emateko.

## **9. artikulua. Zozketan onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda**

Ordiziako Udalean ezarritako erregistroaren zerrendatik abiatuta, Alkatetzaren ebazpen bidez ezarriko da onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendan, datu hauek jasoko dira:

- a) Eskatzaile guztien izen-abizenak, genero-indarkeriaren biktimen kasuan izan ezik.
- b) Bizikidetzak-unitateko kideen kopurua.
- c) Hala badagokio, baztertu izanaren arrazoia(k).

- d) Onartutako eskaera bakoitzari zozketarako esleitu beharreko zenbakiak guztira.
- e) 2014ko abenduaren 31 baino lehen Ordizian erroldatuta egotearen aintzatespena.

Zerrenda hori udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da, eta jendaurrean egongo da 10 lanegunez.

Hamar egun balioduneko epe horretan eskatzaileek erreklamazioa ezartzeko aukera izango dute, baldin eta haiek baztertzeko arrazoiak desegokiak direla uste badute edo euren izen-ematean akatsik badago.

## **10. artikulua. Onartuen behin betiko zerrenda eta etxebizitzaren zerrenda**

Aurkeztutako erreklamazioak ebatzita, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak Ordiziako udaletxeko iragarki-tauletan eta udalaren web orrian egongo dira ikusgai.

Behin betiko zerrendak onartzen dituen erabakiaren aurka hautazko berraztertze-errekurtsoa edo, hala badagokio, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzi Epaitegian.

Behin betiko zerrendek honako datu hauek izango dituzte:

- a) Eskaeraren buruan denaren izen-abizenak, genero-indarkeriaren biktimen kasuan izan ezik.
- b) Bizikidetzako unitateko kideen kopurua.
- c) Zozketarako esleitu zaizkion zenbakiak.
- d) 2014ko abenduaren 31 baino lehen Ordizian erroldatutako daudela egiaztatzen duten bizikidetzak-unitateak taldean sartzea.

Orokorrean, eskaera bakoitzari zenbaki bat esleitu zaio. Hala ere, ondoren aipatuko ditugun baldintzetakoren bat betetzen duten eskaerei bi zenbaki korrelatibo esleitu zaizkie:

- a) Bikoteka izenpetutako eskaerak.
- b) Norberaren kargura haurra(k) dituen aita edo ama.

Hiru zenbaki korrelatibo emango zaizkie adin txikiko haurrak euren kargura dituzten bikoteek izenpetutako eskaerei.

Parte-hartzaileen behin betiko zerrendan onartu gisa hartu izanak ez du esan nahi eskatutako gainerako baldintzak eta betebeharrak betetzen dituztela. Baldintza horiek etxebizitzak behin betiko esleitu aurretik egiaztatuko dituzte.

Behin betiko zerrendekin batera, zozketatuko diren sorten zerrenda emango da argitara. Zerrenda hori agiri honekin batera doazen kalifikazioetan sartuko da. Sortak 3. artikuluan ezarritako zerrendan esleitutako sorta-zenbakiaren arabera izendatuko dira.

## **11. artikulua. Zozketa**

Erosteko aukera ematen duen errentamendu-erregimenean etxebizitza, garaje eta trastelekuz osatutako sortak esleitzeko zozketa Ordiziako Udaleko idazkariaren eta Ordiziako notarioaren aurrean egingo da, behin betiko zerrendak jendaurrean jarri ondoren. Zozketaren lekua, eguna eta ordua Udalaren iragarkien taulan eta web-orrian argitaratuta jakinaraziko dira.

Nahi duenak zozketan egoteko aukera izango du.

Zozketarako prozedura honako hau izango da: Zaku batean sartuko dira 2014ko abenduaren 31 baino lehen Ordizian erroldatutako bizikidetzaren unitateen taldeko eskatzaileei esleitutako zenbakiak dituzten bolak. Jarraian, bolak aterako dira eta sarbide-zenbakia ateratze-hurrenkeraren arabera esleitu da. (Lehendabizi ateratako zenbakiari 1 zenbakia egokituko zaio sarbide-zerrendan, bigarrenik ateratakoari 2 zenbakia eta, horrela, hurrenez hurren). Jarraian, berdin jardungo da gainerako bizikidetzaren unitateei esleitutako zenbakiekin. Betiere, bola guztiak aterako dira, eta horrek bidea emango du itzarote-zerrendaren hurrenkera ezartzeko. Zerrenda hori indarrean egongo da prozeduran bildutako etxebizitza guztiak erosteko aukerarekin errentan hartzeko kontratuak amaitu arte.

Zozketaren emaitza eta itzarote-zerrenda notario-akta batean jasoko da. Akta hori Ordiziako Udalaren web-orrian eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da.

## **12. artikulua. Esleipendunak**

Behin-behineko esleipenaren berri banan-banan emango zaie onuradunei. Horiei, zozketan ezarritako ordenaren arabera, errekerimendua egingo zaie etxebizitza aukeratzeko, eta hamabost eguneko epea izango dute aurretik egiaztatu ez dituzten eta nahitaez bete behar dituzten baldintzei dagozkien agiriak aurkezteko. Aipatutako baldintza betetzen ez duten guztiak baztertu egingo dituzte. Ondorioz, itxaron-zerrendako hurrengo eskatzaileari emango zaio libre geratutako sortaren esleipendun izateko aukera.

Behin-behineko esleipendunak behin betiko izango dira hauen datu pertsonalak eta aurkeztutako agiriak zuzenak direla eta eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen dutenean.

Hala izango ez balitz, hau da, esleipendun suertatu denak oinarri hauetan eta gaiaren inguruan indarrean den araudian eskatutako baldintzak eta betebeharrak betetzen ez dituela egiaztatzen bada, pertsona edo bizikidetzaren unitate horri plaza kenduko zaio eta itzarote-zerrendako aurrenekoari esleitu zaio.

## **13. artikulua. Behin betiko esleipenaren ondorengo betebeharrak**

Prozedura honen xede diren sustapenetako sorta baten esleipendun suertatutako pertsonak, jabetzarekin, erosteko aukera ematen duen errentamendu-kontratua egiteko formalitateak bete beharko dituzte. Ildo horretatik, oinarri hauen 5. artikuluan adierazitakoarekin bat etorrita, nahitaez

titularkide izan behar dutenek kontratua sinatu behar dute. Esleipenduna sinadurara agertzen ez bada eta horretarako arrazoirik ematen ez badu, esleipenari uko egin diola ulertu ahal izango da, eta ondorioz, itxarote-zerrendako hurrengo pertsonari edo bizikidetz-unitateari emango zaio esleipendun izateko aukera.

### 1. Babes ofizialeko etxebizitzaren lagapena eta beharrezko baimena

Esleipendunek babes ofizialeko etxebizitzak ohiko etxebizitza gisa erabili behar dituzte. Etxebizitza horiek ezingo dira errentan edo jabetzarik gabe laga, baldin eta dagokion administrazioak horretarako baimenik ematen ez badu.

### 2. Kontratuen oniritzia

Babes ofizialeko etxebizitzaren eta horien eranskinen jabetza eskualdatzeko edo horien gaineko eskubide errealak eratzeko edozein eskritura publiko egin baino lehen, hipoteken kasuan izan ezik, dagokion agiri pribatua aurkeztu beharko da Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Politiketako Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan, bertan onar dezaten. Horiek aurkezteko betebeharra etxebizitzaren eskualdatzaileari dagokio.

### 3. Bizitegi-betebeharra betetzen ote den ikuskatzea

Errentamendu-kontratuetan baldintza-klausula bat jarriko da. Klausula horren arabera onuradunak etxebizitza okupatzeko eta bertan erroldatzeko konpromisoa hartzen du zozketa egiten den unean indarreko legeriak adierazitako epean. Baldintza hori betetzen ez badu kontratua deuseztatuko da, eta ez da gehiago erosteko aukera ematen duen alokairuko erregimeneko etxebizitzaren onuradun izango.

## **14. artikulua. Araubide juridikoa**

Baldintzen Agiri honetan espresuki aurreikusten ez den kasu guztietan, babes ofizialeko etxebizitzak erregulatzen dituen araudian xedatutakoa beteko da.

**Ordizia, 2015eko ekainaren 12a.**













**EB3-0920/09-LE-000 ESPEDIENTEAREN ERANSKINA**

**ANEXO AL EXPEDIENTE EB3-0920/09-LE-000**

|  |  |
|--|--|
| <b>1.- SUSTAPENAREN EZAUGARRIAK</b>  | <b>1.- CARACTERÍSTICAS DE LA PROMOCIÓN</b>   |
| - Sustapen-mota: BOE, SUSTAPEN<br>PRIBATUKOA   | - Tipo de promoción: V.P.O. DE PROMOCIÓN<br>PRIVADA  |
| - Etxebizitza-mota: BOE, ERREGIMEN<br>OROKORREKOA  | - Tipo de vivienda: V.P.O. DE RÉGIMEN<br>GENERAL   |
| (39/2008, martxoaren 4koa Dekretuaren 2. art.)   | (Art. 2 del 39/2008, de 4 de marzo)  |
| Etxebizitzak lortzeko eta hasierako erabilerako<br>erregimena: JABETZA   | Régimen de acceso y uso inicial de las viviendas:<br>PROPIEDAD   |
| Babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedura,<br>non Udalak betiko edo bolada baterako eratu duen<br>erregistroarekin parte hartu baitu. | Procedimiento de adjudicación de viviendas de<br>protección oficial en el que interviene el<br>Ayuntamiento con el Registro Propio que ha<br>constituido de forma permanente o temporal. |
| <b>2.- SUSTAPENAREN ELEMENTUAK</b>   | <b>2.- ELEMENTOS DE LA PROMOCIÓN</b>   |
| Etxebizitza-kopurua guztira  | Número total de viviendas 60   |
| Etxebizitzen azalera erabilgarria guztira  | Superficie útil total de las<br>viviendas 5.086,57 m <sup>2</sup>  |
| Etxebizitzei lotutako garaje-kopurua guztira   | Número total de garajes<br>vinculados 60   |
| Etxebizitzei lotutako garajeen azalera erabilgarria<br>guztira   | Superficie útil total de garajes<br>vinculados 1.522,60 m <sup>2</sup>   |
| Etxebizitzei lotutako trasteleku-kopurua guztira   | Número total de trasteros<br>vinculados 60   |
| Etxebizitzei lotutako trastelekuen azalera<br>erabilgarria guztira   | Superficie útil total de<br>trasteros vinculados 406,85 m <sup>2</sup>   |
| Etxebizitzei lotu gabeko finantzatutako eranskin-<br>kopurua   | Número de anejos no<br>vinculados, con financiación  |
| Etxebizitzei lotu gabeko finantzatutako eranskinen<br>azalera erabilgarria guztira   | Superficie útil total de anejos<br>vinculados, con<br>financiación   |
| Etxebizitzei lotu gabeko finantzatutako eranskin eta lokalen kopurua guztira   | Número total de anejos no<br>vinculados sin financiación y<br>locales 10   |



ETXEBIZITZA, HERRI LAN  
ETA GARRAIO SAILA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDAS  
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES  
Delegación Territorial de Vivienda de Gipuzkoa



*Etxebizitzei lotu gabeko finantzatu gabeko eranskin eta lokalen azalera erabilgarria guztira*

### 3.- APLIKA DAITEKEEN FINANTZAKETA-ERREGIMENA

*Eusko Jaurlaritzaren 39/2008, martxoaren 4koa Dekretua, babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa.*

#### 4.- SALMENTA GEHIENEZKO PREZIOA

1.404,990000 €/m<sup>2</sup> erabilgarri x 1,1500 Lehenengo 45 m<sup>2</sup> azalera erabilgarriak.

1.404,990000 €/m<sup>2</sup> erabilgarri x 1,1000 45,01 m<sup>2</sup> - 60m<sup>2</sup> erabilgarri bitartean.

1.404,990000 €/m<sup>2</sup> erabilgarri x 1,0000 60,01 m<sup>2</sup> - 75m<sup>2</sup> erabilgarri bitartean.

1.404,990000 €/m<sup>2</sup> erabilgarri x 0,4000 75,01 m<sup>2</sup> - 90m<sup>2</sup> erabilgarri bitartean.

1.404,990000 €/m<sup>2</sup> erabilgarri x 1,0000 90,01 m<sup>2</sup> erabilgarritik aurrera.

561,996000 €/m<sup>2</sup> erabilgarri lotutako eranskinetan. (Oinarrizko prezioa x 0,4000)

#### 5.- BABES-ERREGIMENAREN IRAUPENA

*Iraunkor.*

#### 6.- FINANTZAKETA KUALIFIKATUA

*Sustatzailak sustapen hau garatzeko Eusko Jaurlaritzarekin etxebizitza-arloko finantza-lankidetzako hitzarmena sinatu duten kreditu-erakundeetatik lor dezakeen mailegu kualifikatuaren gehienezko zenbatekoa 6.510.383,02 € izan da edo izango da.*

*Mailegu kualifikatu hau, emateri eta oinarrizko baldintzei dagokienean, babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa 39/2008, martxoaren 4koa Dekretuan eta horren garapen-araudian ezarritako muga mugan mende egon*

Superficie útil total de anejos no vinculados, sin financiación y locales 253,44 m<sup>2</sup>

### 3.- RÉGIMEN DE FINANCIACIÓN APLICABLE

Decreto del Gobierno Vasco 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, y disposiciones que lo desarrollan.

#### 4.- PRECIO MÁXIMO DE VENTA

1.404,990000 €/m<sup>2</sup> útil x 1,1500 los primeros 45 m<sup>2</sup> superficie útil.

1.404,990000 €/m<sup>2</sup> útil x 1,1000 desde 45,01 m<sup>2</sup> hasta 60 m<sup>2</sup> superficie útil.

1.404,990000 €/m<sup>2</sup> útil x 1,0000 desde 60,01m<sup>2</sup> hasta 75 m<sup>2</sup> superficie útil.

1.404,990000 €/m<sup>2</sup> útil x 0,4000 a partir de 75,01 m<sup>2</sup> hasta 90 m<sup>2</sup> superficie útil.

1.404,990000 €/m<sup>2</sup> útil x 1,0000 a partir de 90,01 m<sup>2</sup> superficie útil..

561,996000 €/m<sup>2</sup> útil de anejos. (Precio Base x 0,4000)

#### 5.- PLAZO DE DURACIÓN DEL RÉGIMEN DE PROTECCIÓN

Permanente.

#### 6.- FINANCIACIÓN CUALIFICADA

La cuantía máxima del préstamo cualificado a obtener por el promotor para el desarrollo de esta promoción de las Entidades de Crédito firmantes del Convenio de Colaboración Financiera con el Gobierno Vasco en materia de vivienda ha sido o será de 6.510.383,02 €.

Este préstamo cualificado ha estado o estará sometido en cuanto a su concesión y condiciones esenciales a limitaciones establecidas en el Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo así como



da edo egongo da.

**7.- ERAIKINAREN ERREGISTRO-  
ERREFERENTZIA**

*Jabetza Erregistroa:*

|                  |              |                |              |                  |                    |                |
|------------------|--------------|----------------|--------------|------------------|--------------------|----------------|
| <i>Lur-zatia</i> | <i>Tomoa</i> | <i>Liburua</i> | <i>Folia</i> | <i>Finka zk.</i> | <i>Inskripzioa</i> | <i>Azalera</i> |
| Parcela          | Tomo         | Libro          | Folio        | Finca nº         | Inscripción        | Superficie     |

**8.- SALMENTA-PREZIOAK**

su normativa de desarrollo.

**7.- REFERENCIA REGISTRAL DE LA  
EDIFICACIÓN**

Registro de la Propiedad de:

**8.- PRECIOS DE VENTA**




EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA, HERRI LAN  
ETA GARRAIO SAILA

*Etxebizitzako Gipuzkoako Lurralde Ordezkeritza*

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,  
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

*Delegación Territorial de Vivienda de Gipuzkoa*



Exxebizitza, Herri Lan  
eta Garraio Saila.

Departamento de Vivienda,  
Obras Públicas y Transportes

## SALMENTA PREZIOAK PRECIOS DE VENTA

ELISKO JAURLARITZORRIA / Página: 11

GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA, HERRI LAN  
ETA GARRAIO SAILA

Exxebizitzako Gipuzkoako Lurralde Ordazkaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA,  
OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES  
Delegación Territorial de Vivienda de Gipuzkoa

**Moneda**  
Moneda : EURO

**Espediente Zenbakia**  
Número Expediente : EB3-0920/09-LE-000  
ETXEBIZITZAK ETA ATXIKITAKO ERANSKINAK  
VIVIENDAS Y ANEJOS VINCULADOS

| Zenbakia<br>Número | Gaia<br>Elemento  | Exxebizitza-blokea edo Kalea<br>Bloque o Calle | Ataria<br>Portal | Solairu-kokapena<br>Situación en Planta | Aldea<br>Mano | M <sup>2</sup> Erabilgarriak<br>M <sup>2</sup> Útiles | Salmenta Prezioa<br>Precio Venta                  | Gehienezko Mailegua<br>Préstamo Máximo           |
|--------------------|---|--|------------------|---|---------------|---|---|--|
| 31                 | ETXEBIZITZA<br>VIVIENDA<br>GARAJEA<br>GARAJE<br>TRASTELUKUA<br>TRASTERO | FILIPINAK (Calle)<br>FILIPINAK (Calle)         | 42<br>40-42      | BAJA<br>SEMISOTANO<br>SEMISOTANO        | A<br>20<br>16 | 82,55<br>25,16<br>6,83                                | 121.208,49<br>14.139,82<br>3.838,43<br>139.186,74 | 96.966,79<br>8.483,89<br>2.303,06<br>107.753,74  |
| 32                 | ETXEBIZITZA<br>VIVIENDA<br>GARAJEA<br>GARAJE<br>TRASTELUKUA<br>TRASTERO | FILIPINAK (Calle)<br>FILIPINAK (Calle)         | 42<br>40-42      | BAJA<br>SEMISOTANO<br>SEMISOTANO        | B<br>16<br>20 | 71,94<br>33,68<br>4,45                                | 112.666,15<br>16.859,88<br>2.500,88<br>132.026,91 | 90.132,92<br>10.115,93<br>1.500,53<br>101.749,38 |
| 33                 | ETXEBIZITZA<br>VIVIENDA<br>GARAJEA<br>GARAJE<br>TRASTELUKUA<br>TRASTERO | FILIPINAK (Calle)<br>FILIPINAK (Calle)         | 42<br>40-42      | BAJA<br>SEMISOTANO<br>SEMISOTANO        | C<br>19<br>17 | 84,15<br>23,43<br>5,01                                | 122.107,68<br>13.167,57<br>2.815,60<br>138.090,85 | 97.686,14<br>7.900,54<br>1.689,36<br>107.276,04  |

*N.º 1  
del  
Pliego*





REGISTRO DE LA PROPIEDAD TOLOSA Nº 2  
 Asiento : 1.513 Diario : 144  
 Entrada : 2013/1890 Protocolo:  
 Fecha presentación: 09-09-2013 Hora: 11:09  
 Fecha caducidad : 21-11-2013

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO  
 SAILA  
 Etxebizitzako Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y  
 POLÍTICAS SOCIALES  
 Delegación Territorial de Vivienda de Gipuzkoa

ESPEDIENTE ZK.: EB3-0147/11-LE-000  
 Nº DE EXPEDIENTE:  
